

Araban apirilaren 3an hasi eta ekainaren 26an amaituko da errenta kanpaina

Data horretatik aurrera, “rentafacil” proposamena eginda duten zergadunak Egoitza Elektronikoa sartu ahal izango dira, BAK, BAKQ edo baliozko beste edozein ziurtagiriren bidez identifikatuta, proposamena egiaztatzeko eta onartzeko edo, hala badagokio, aldatzeko

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 13a. Errenta kanpaina apirilaren 3an hasi eta ekainaren 26an amaituko da Araban. Data horretatik aurrera, “rentafacil” proposamena eginda duten zergadunak Egoitza Elektronikoa sartu ahal izango dira, BAK, BAKQ edo baliozko beste edozein ziurtagiriren bidez identifikatuta, proposamena egiaztatzeko eta onartzeko edo, hala badagokio, aldatzeko. Aurreko urteetan bezala, proposamena aldatu egin daiteke alokatutako higiezinaren etekinak, ohiko etxebizitzaren alokairuaren kenkaria eta banku helbideratzearen kontua gehituz. Aurten, berrikuntza gisa, etxebizitza kontuaren kenkaria eta dohaintzen kenkaria ere gehitu daitezke. Proposamen horien berrespenak 2023ko apirilaren 19tik ekainaren 18ra egin ahal izango dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik kanpo.

“Halaber, apirilaren 3tik aurrera, “rentared” modalitateko aitortpenak aurkeztu ahal izango dira; zergadunek Arabako Ogasunak egindako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren laguntza programaren bidez egindako eta Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikotik bidalitako proposamenak dira.

Aitortpenak bidaltzeko, baliozkoak izango dira Izenpek emandako Bak eta Bakq identifikazio eta sinadura elektronikorako baliabideak, bai eta egoitza elektronikoa horretan baliozkoa den beste edozein ziurtagiri digital ere. Era berean, apirilaren 3tik aurrera, aholkularitza edo kudeaketa bulegoek beren bezeroen errentaren eta ondarearen gaineko zergaren aitortpenak aurkeztu ahal izango dituzte “rent@raba” modalitatean.

Apirilaren 19an, errentaren gaineko zergaren aitortpenak aurrez aurre egiten hasiko dira Arabako Foru Ogasunaren bulegoetan (Gasteiz, Laudio eta Guardia), “rent@raba” modalitatean.

Doako zerbitzu hori zergadun guztiek eskuratu ahal izango dute, salbu eta 2022an jardueraren ekonomiko batean aritu direnek, beren ohiko etxebizitza saldu dutenak, higiezinak edo akzioak saltzeko hiru eragiketa baino gehiago egin dutenak, merkataritza sozietateetako kotizatu gabeko partaidetzak saldu dutenak edo lekualdatutako langileentzako araubide bereziaren arabera tributatzea erabakitzen dutenak. Ordainketari dagokionez, ondarearen gaineko zergaren autolikidazioetatik ateratzen den zenbateko osoa 2023ko ekainaren 26rako sartu behar da. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kasuan, autolikidazioa egin ondoren ateratzen den zenbateko osoa ekainaren 26a baino lehen sartu ahal izango da, edo ordainketa zatikatu. Azken kasu horretan, lehen ordainketa, guztizko zenbatekoaren % 60, 2023ko ekainaren 26rako egingo da, eta bigarren ordainketa, gainerako % 40a, 2023ko azaroaren 10erako.